



BULARREKO HAURREN UNITATEA

 Zuen erosotasunerako eta haurtxoei arreta onena eman ahal izateko, gomendio batzuk eman nahi ditugu, ospitalean ezinbestekoak diren lasaitasuna eta isiltasuna gordetzen lagunduko digutenak.

Unitateak ondo funtzionatzeko zure laguntza behar dugu.
Eskerrik asko.

SARBIDEA



Bularreko haurren unitatera eguneko 24 orduetan sartu daiteke. Baliteke memento batzuetan gela utzi behar izatea, gerta daitezkeen arreta-beharrak atendi-tu ahal izateko.

BISITAK



Egunez bi senide egon daitezke haurtxoarekin eta gauez, 21:00etatik 09:00etara, senide bat.

MEDIKUAREN BISITA



Egunero 09:00etatik 11:00etara, igandeak eta jai-egunak salbu. Medikuaen bisitaren ondoren senideei ematen zaie informazioa. Haurtxoa espezialitate batekoa bada (Kirurgia, Otorrinolaringologia, Traumatologia, etab.) bisita goizean zehar izango da, hitzordu zehatzik ez dagoela.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA



Nahi baduzu, ospitaleak badu psikologiako taldea zure zerbitzura.

GARBITASUNA



Egunero egiten da. Goizez boxean unitateko pertsonala ardurtuko da haurtxoaren garbitasunaz.

OTORDUAK



- Gosaria: 09:00
- Bazkaria: 12:30
- Merienda: 16:30
- Afaria: 20:00

Biberoiak haurtxoaren eskariaren arabera ematen dira eta Dietetikako Unitateak prestatzen ditu. Behar den materiala ospitaleak ematen du, medikuak kontrakoa agintzen duen kasuetan izan ezik.

GOMENDIOAK



- Senide zaintzaileak atera behar duenean boxetik esan egin behar dio pertsonalari.
- **Istripuak saihesteko, sehasketako alboko babes-barrak igota eduki behar dira.**
- Takila bat dago gauza pertsonalak uzteko eta dutxa bat dago familiartekoentzat.
- 24 orduetan erizain bat eta erizain laguntzaile bat egongo dira, behar duzunerako. Pertsonalari deitzeko txirrin bat dago. Boxean egon arreta iritsi bitartean. 08:00etatik 15:00etara **unitateko gainbegiralea egongo da.**
- Haurtxoa ibiltzen bada zapatilak beharko ditu eta txupetea ere, erabiltzen badu. Paseoko aulkia unitateak jartzen du.
- Laneko ziurtagiria behar izanez gero, Arantza zu eraikineko sarrera nagusiko informazio-gunean emango dizute (NANA aurkeztu behar da).
- Pediatriako zerbitzuak badu gela berezi bat ordenagailuz eta jolasekin hornitua (laugarren solairuko alde urdinean). Hara igo nahi izanez gero, eskatu baimena pertsonal arduradunari.
- Boxean telefonoa dago, 11:00etatik 20:00etara deiak hartzeko. Zenbakia telefonoan bertan dago idatzita.
- Higienearengatik eta besteekiko errespetuagatik, boxa garbia eta txukuna eduki eta boxeko atean dauden arauak errespetatu.
- Senda-agiria eskuratu orduko, libre utzi boxa, al bait arinen.